

## EDONoz ETA EDONON

Guztiok ezagutzen dogu Paulin Solozabal olerkari ospatsua eta berak idatzitako bederlatzi olerki-liburuetan zer bait irakurri be egin dogu.

Paulin pozik eta gertu egoten da aukera datorrenean bere olerkiak abesteko: Batzarretan, omenaldietan, ezkontzetan, lenengo jaunatzeetan, adiskideen jatorduetan.

Gaurko ZER onetan bere lau ekinaldi eskintzen dautseguz irakurleai: Lenengoa Eleiz-arduradun batzuren batzarrean,

Mungia'ko gure etxean bazkaltzeko jesarri-aurrean. Bigarrena inguruko abadeak etxe onetara lenengoz urreratu ziranean. etxe barriari asierea emoteko gurariaz, janari zan bildotsa gai dala. Eta irugarrena Aita Santiri Zornotza'k egin eutsan omenaldian abesteko gertatu ebazanak.

Eskerrak Paulin'eri bere lanagaitik eta aukerea irakurleai bere olerkiak irakurri dagiezan.

PREs TU

### (Eleiz-Arduradunen batzarrean)

Ongi etorri jaun autatuak,  
zuen etxe onetara,  
orma barriak... atepak zabal  
daukaz zuen omenera;  
gizon prestuak, alan, bear dau  
adiskidetasunera,  
aurki barrian oiñak kokatuz  
egokera ederrera.

Gure seigarren baillera onek  
ba-dituz gizon argiak,  
oroz goitikan bear dan legez

seme leial langilleak;  
ekin ta jarrai diarduzue  
urratzen jokabidiak,  
argi barriak argitu daizan  
kristauen burubidiak

Kristau erriak izan bear dau  
lur ontan gatz ta argia,  
berau dalako mundu baltzean  
Maisuaren irudia;  
egitekorik neketsuena  
gizonak argitutia,

zorioneko maillara doa  
ortan doan izerdia.

Zeru altutik begira dago  
lur illunaren sorlea,  
jendea dakus arrokerizko  
puts ustelez betea;  
mundo orretan zabaldu bear  
egiaren txinpartea,  
burruka ortan agertuten da  
apaiz trebien alea.

BILDO TSA

### (Etxe barrian, adiskide-arteko bazkarian)

Mendi orleian bildots zuria  
saltari dabil aizetan,  
bedarra jan ta, esnea edan  
amaren magal gozotan;  
bakea eder mendi gainean  
eguzkiaren printzetan,  
bizitzak ba-dau gozotasuna  
arrats berako pozetan.

Goizian goiztar barriro bere,  
artzain ta artzainora "txuri"  
txabol zarretik urtetan doaz

bide zear abeslari;  
urdaillak gosez, zelaiak eder,  
bedar gozoa ameslari,  
bildots zuriak edertzen doaz  
eskerrak bedar onari.

Begi begira dabiltz gizonak  
euren amets urdñetan,  
iñori kendu euren bizia  
norbere mizkerietan;  
bildots gaisoa, erru gabea,  
etsaiak dozuz kezketan,

ainbeste zelai arritu ziran  
atzo odol gorrietan.

Zure bizitza otzan ta samur  
maitasunaren iduri,  
gizon etsaiak biurto dabe  
euren gorputzen janari;  
pekatu baltz au parka eiozu  
otsoko iltzailleari  
zure biziak indartu daion  
arnasea apaizari.

AIT A S AN

### (Zornotza'ko omenaldirako)

Dardar daragist gizandi onek  
bildur eta pozezkoa,  
bere bizitzaz lekaidetarra  
gogoz Euskalerrikoa;  
euzko lurretik artu zenduan  
jatorrizko erioa,  
zelai ta mendi, baratz ta gizon  
maitasunezko gogoa.

Egi ederra zan zuretzako  
arbasoen izkuntzen,  
baiña danetan ederrena zan  
Euskalerriko jendea;  
birau zakarrrik ez zan entzuten,  
ain garbia zan berbea,

euzkotar biotz zuzena danak  
bere almenez betea.

Giza begiak zabaldu ziran  
uri ta baserritara,  
dana zenkusan katei azpian  
etsaien gogorkerira;  
ama onena negar-miñetan  
kurutzatuen antzera,  
nork ez min artzen ainbeste lerrez  
amaren zoritxarrera.

Aldi aretan guda baltzena  
agertu zan gure errian,  
ordurartian itzez burruka

egin zenduan kalia;  
ondorenean gudari-apaiz  
lagundu zeuntzen mendian,  
baita-be-gero amaren miñez  
iru-urtetan espetsxian.

Guda ondoren, urte baltzetan,  
artu zenduan lumia,  
al zendun eran salbatuteko  
euskeraren arnasia;  
lan ta burruka ta jazarpena  
izan zan zure bizia,  
odol ez beste dana joan zan  
erriari eskeinia.

PAULIN